

## **Liburuaren Eguna ospatzeko ekitaldiak antolatu dituzte Sopelan**

Apirilaren 23an Liburuaren Nazioarteko Eguna dela eta, hainbat ekimen antolatu ditu Sopelako Udalak. Horrela, hilaren 18, 19 eta 20an Irakurketa Txokoa eta tailerrak izango dira, 17:00etatik 20:00etara, Kurtzio Kultur Etxean. Irakurketa Txokoa umeen aisialdia betetzeko asmoa duen kultur programa da, txikiak liburu eta irakurketari gerturatzeko xedeaz, udal iturriek zehaztu dutenez. Gainera, haurrekin doazen nagusiek denbora atsegina igarotzeko modua edukiko dute. Adin mugapenik ez badago ere 2 eta 12 urte bitartekoei zuzenduta dago bereziki, aita-amen konpainian. Apirilaren 27an, berriz, 'ontakatilu Katilukadak' txotxongilo ikuskizuna izango da 18:30ean, Kurtzion. Sarrera bakoitzak 3 euro balio ditu eta kultur etxean bertan egongo dira eskuragarri. Argazkian, Kurtzio Kultur Etxean izango dira ekitaldiak / Sopelana.net.

Azkenik, hilaren 30ean, 'Harriz harri' ikuskizunaz gozatzeko aukera egongo da euskaraz, Kurtzio Kultur Etxean. Ikuskizuna 3 urtetik gorakoei zuzenduta dago. Lehengo emanaldia 18:30etik 19:00etara izango da eta bigarrena 19:30etik 20:00etara. Sarrera bakoitzak 3 euro balio ditu. Bestalde, Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatutako euskal liburu azoka 11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara izango da. Liburutegi ibiltaria 'Liburu bat botoi baten barruan' lelopean egingo da.